AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

70

1118/2013 EBAZPENA, urriaren 1ekoa, Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearena, Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendariorde medikoaren lanpostua betetzeko Guillermo Alcalde Bezhold jauna izendatzen duena.

Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendariorde medikoaren lanpostua betetzeko deialdia 2013ko abuztuaren 16ko EHAAn argitaratu zen (155. zenbakia), Zuzendaritza honen uztaileko 543/2013 Ebazpenaren bitartez.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak «curriculum vitae»-en jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Guillermo Alcalde Bezhold jauna deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela-eta, zuzendaritza honek,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Guillermo Alcalde Bezhold jauna Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendariorde mediko izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2013ko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 1a.

Arabako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentea,
JESÚS MUÑOZ FERNÁNDEZ.